

Itxaro Borda

AAA(H)

F

rançois Fillon frantses ministroak deklaratu du, zorra eta ongizate eredia hobesten darraitenek estatu modernizatzeari beldurra diotela. Sarkozyren gobernuak, bistan dena, ez du lotsarik. Baina kudeatzea suertatu zaien lurraldea alferrez, iruzurgilez, ebaslez, inutitez osatua denez labana eskuan herriaren gorputz malguan sarraski odoltsuak dagizkitez, merkatuei plazer egiteko. Ez baitute AAA nota galdu nahi. Hezkuntza, zerbitzu publikoak, kultura eta osasuna sakrifikuak dira. Jendetasun harremanaren oihala iruten duten hariak alabaina.

Steve Reich minimalistak sortu WTC 9/11 obra entzuten ari naiz zutabea idatzi bitartean. New Yorkeko Dorre Bikien leherketak, terrorismo islamikoaren aurkako borrokaren aitzakian, neoliberalismoaren ahoak zabalzabalik utzi zituen. Politika alorra deserta bilakatzen ikusten dugu dagoeneko. Alderdiak merkatuen tiraniaren aitzinean belaunikatzen eta nahasten dira. Lagun batzuek ezkeraren eta eskuinaren arteko mugak uhertu direla ondoriozta dezakete, beraien bikoizkeria justifikatzeko batez ere. Politikaren denbora luzea da, eztabaidatsua, bakoitzak uste duela jakitea nondik mintzo den eta norentzat. Azken hilabeteotan merkatuak argiki demokraziaren jokoak ukatzen du estatu anitzetan. Demokraziaren ideia hazi zuen Grezian lehenik, Italian gero, Espainian eta Frantzian laster.

Atenasen eta Erroman gertatuak deigarriak zaizkigu. Hauteskunderik gabe aldatu dira gobernuak: Papandreou eta bere erreferendum xedea kanpora Papademosen faborez, Syntagma plazan; Berlusconi kalamitatsuaren lekuan Mario Monti, Forum Zaharraren hegian. Papademos, Monti eta Draghi Europar Banku Zentraleko zuzendaria, Goldman Sachseko arduradun ohiak dira hiruk. Parla-



DANI BLANCO

mentuek ez zuten diktatuen aurrean baiezkoa bozkatzeaz beste aukerarik izan. Oldartzen ahal ziren noski, baina ez ziren higitu, beraien ahalmenen konfiskatzea onartzen zuten, ondikotz, halabeharrez bezala, aspaldian idatzi merkatu jaingo omnipotentearen lehen manamenduari men eginez.

Merkatuen iritzi gobernuak ez dira aski fite ari langileriaren eta herresteriaren “pribilegioen” sunsiketaren bidean. Egiturak modernizatzen hots, Fillonek dioenez. Helburua da enpresek eta bankuek zotz bakar bat ez dezaten gehiago xahu sozial alorrean, lana Txinako zein Errumaniako prezioan ordainduz adibidez, praktikan erretretarako dretxoa ezabatuz, osasuna norberaren gain abandonatuz eta bereziki nagusigoaren parte-hartzea egitura kolektiboetan hutsaren hurbilera borobilduz. Grezian jada baliabiderik ez duten herritar xumeak gobernuak kanpoko mediku erakundeen atetan metatzen dira. Etikoki onargarria al da pobrezia uhin orokor hori Frankfurtuko Ostende auzoan miliarrak despendiatuz Eurotower berriak eraikitzen ari den Europa batean?

Steve Reichen melodia bukatu da. Kronos Quartetak bildu ahotsak dio: *It was not an accident...* Ez, ordutik hona gertatuak ez ziren istripuak, ekonomialariek botere politikoak gatibatzeko sakonki hausnartu taktika manipulatuak baino, zorraren obsesio morbidoa barne. Zehazki formatatu diskurtsoak azpimarragarriak dira: eskubideak kentzen dituzte libertatearen, berdintasunaren eta haurridetasunaren izenean, betekizun dorpeak gehitzen elkartasuna deituz eta seguritate sozialaren dinamitzeko Erresistentziaren Batzordeak horren sortzeko baliatu ideia berdinak deidartzen dabilta.

Stephane Hesselek prezia-tuko du. ■



◀

Helburua da enpresek eta bankuek zotz bakar bat ez dezaten gehiago xahu sozial alorrean, lana Txinako zein Errumaniako prezioan ordainduz adibidez, praktikan erretretarako dretxoa ezabatuz, osasuna norberaren gain abandonatuz eta bereziki nagusigoaren parte-hartzea egitura kolektiboetan hutsaren hurbilera borobilduz

▶